

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,  
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA  
Garapen Estrategikoa eta Etxebizitza

#### 177/2026 Prozedura arruntean epea jartzea

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. sekzioan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (177/2026 zenbakiko prozedura arrunta) izapidetzen ari da; M. A. M. B. eta R. G. G., k aurkeztu zuten errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2025eko abenduaren 22ko erabaki baten kontra (2025eko abenduaren 29ko ALHAO, 147. zenbakia eta 2026eko otsailaren 4eko ALHAO, 15. zenbakia), zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen Vitoria-Gasteizko hiri antolamenduko plan orokor berria. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikulua ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 9an

*Hirigintza zuzendari nagusia*  
**MIKEL INCHAURBE OCERINJAUREGUI**